



Antonio
Tovar
Llorente

Euskara mundu zabalera jalgiten

1911-1985

BIDeGILEAK

Egilea:

Joakin Gorrotxategi



ANTONIO TOVAR LLORENTE

(1911-1985)

Antonio Tovar Llorente Valladoliden jaio zen duela ehun urte, 1911ko maiatzaren 17an hain zuzen, familia fededun eta tradizionalista baten barruan. Aita notario zuen eta amaren neba bat, Daniel Llorente, Segoviako apezpiku izatera heldu zen.

Aitaren lanbideak hala eskatzen zuelarik, familiak denboralditxo bat Elorrion pasa zuenean, Antoniok euskara entzuteko aukera izan zuen. Handik Castellóngo Morellara aldatu zen aita, eta han katalana zuzenean ezagutzeko parada izan zuen Antonio gazteak. Denboraldi laburrak

izan ziren biak, laburregiak euskara zein katalana ongi ikasi ahal izateko, baina Valladolideko mutiko baten esperientzia linguistikoa nabarmenki aberastu zuten horietakoak izan ziren dudarik gabe, Antoniok bere bizi guztian mota guztietako hizkuntzen alde erakutsi zuen atxikimendua sortarazi ziotenak.

Batxilergoa han-hemenka ikasle libre gisa egin ondoren, familiaren nahiari jarraituz zuzenbide ikasketak egin zituen, El Escorialeko agustindarrekin. Baina Antoniok hizkuntzak maite zituen bereziki. Institutuan irakasten zen frantsesaz gain



Vallodoliden, 1917 inguruan, erdiko aulki altuan eserita senidez inguratuturik. Atzeko umeak Jose anaia eta Rosario arreba, gurasoen erdian. Aurrean Jose Llorente osaba eta honen emaztea Laura, Antonio umeari piano jotzen irakatsi ziona



Vallodoliden, 1926 inguruan, guraso eta anai-arrebekin. Ezkerretik eskuinera: Jose anaia gazteena, gerran gaixorik hil zena, Anselma ama, Rosario, bera, Maruja eta Antonio aita



Antonio Tovar 1928 inguruan, El Escorialeko agustindarrekin zuzenbide ikasten ari zenean

alemana, ingelesa eta beste hizkuntza batzuk ere ikasi zituen bere kabuz. Urteak pasa ahala, gero eta garbiago ikusten zuen zuzenbidea ez zela bere gogoan aseko zuten ogibidea eta 20 urterekin, estudioak amaitu eta bere familiarekiko zorra edo kitatu ondoren, Filosofia eta Letrak ikastea erabaki zuen.

Orduko Espainiako unibertsitate maila zientifikoa oso apala zen, erakundearen eginkizun ia bakarra titulu banatzaile izatearena zelarik. Halako unibertsitatean nork bere ikerketak ikasleei modu arginean erakutsi egiten zizkieten irakasleak urrea baino urriagoak ziren. Horietako batek, Cayetano de Mergelina arkeologiako katedradunak, Tovarrengan eragin handia izan zuen. Hizkuntza klasikoak

zituen gogoko, antzinatea ikertzea zen haren grina, eta burutapen hori aurrera eramateko asmotan lehendabizi Madrileko *Centro de Estudios Históricos* famatura joan zen eta handik, ikasketa beka bat lortu ondoren, Parisera eta Berlinera, gero.

Arestian aipatutako ikastetxe aurreratu horretan aparteko bi ikerlarik ziharduten lanean: bata Ramón Menéndez Pidal, espainolaren historiaren oinarri zientifikoak ezarri zituen, eta Manuel Gómez Moreno bestea, iberierazko idazkunak deszifratuz penintsulako arkeologia eraberritu zuena. Maisu horiek egiten zuten lanari erreparatuz, ikasi zituen Tovarrek ikerketaren bi-deak: datu berriak aurkitzeko eta biltzeko



Cayetano de Mergelina arkeologoaren ondoan aztarnategiren batean 1934an, kapela buruan eta pikatxoia anka aurrean dituela

hartu behar zen nekea eta proiektu handiak aurrera eramateko behar zen kemena. Ez zitzaion inoiz falta izan gure gizonari, bere bizitzan zehar ezagutu zituen hainbat toki eta egoera ezberdinetan, ez indarririk ez gogorik makina bat lan eta egitasmo burutzeko, ezin baldin bada ere ukatu naturak erruz eman zizkion dohainei esker, batez ere adimen zorrotz eta oroimen indartsuari esker, erraztasun ikaragarria erakusten zuela bere lan guztietan. Nola bestela uler daiteke bi milatik gora lan idatzi izana, Espainian, Argentinan, Estatu Batuetan eta Alemanian hainbat gai ezberdin irakatsi izana eta beste gauza batzuetarako, pianoa jotzeko esaterako edo hainbat jenderekin gutuneria mantentzeko denbora hartu izana!

Tovarrek hizkuntza klasikoak, greziera eta latina, sakondu nahi zituen. Garai hartan filologia klasikoan ez zen Alemania baino herri aurreratuagorik, eta hara jo zuen gure gazteak 1935ean, lehenago Parisetik pasatuz.

Hala ere Madrilen zegoen bitartean, Zentroak 1934an antolaturik Mediterraneoan zehar egin zen itsas bidaia famatuan parte



Atenasen 1934an *Centro de Estudios Históricos* erakundeak antolaturiko bidaian, Manuel Gómez Moreno, Cayetano de Mergelina eta beste batzuekin

hartu zuen, Greziako eta Ekialdeko zenbait toki mitiko zuzenean ezagutuz. Bidaia ez zen inolaz ere plazer hutsezko ibilaldi bat izan, baizik eta bere greziera modernoaren ezaguera sakontzeko eta Greziako arte klasikoa ikusteko aprobe txatu zuena. Bestalde, Bonfante hizkuntzalari italiarraren gidaritzapean hizkuntza indoeuropar zaharrak ikasteari ekin zion.

Gogo hauek barrenean zeramazkielarik, joan zen Tovar 24 urterekin Berlinera, orduko maisu jakintsuenekin ikastera. Han Eduard Schwyzer helenista handiaren eskolak entzun zituen. Ez zuen aukeratik izan, ordea, Eduard Norden klasizistaren eskoletara joateko, ezta ere asko intere-

satzen zitzaion zelta hizkuntzalaritzako ikastaroa, Julius Pokorny-k aurreko urteetan eman zuena, egiteko; lehenengoak nazien politikarekiko desadostasunengatik eta bigarrenak bere jatorri juduagatik, biek ordurako utziak zituzten beren katedrak. Werner Jaeger, aldiz, antzeko egoeran zegoena, ezagutu zuen.

GERRA ZIBILA ETA POLITIKAN PARTE-HARTZEA

Gauza ezaguna da Tovar, politikoki falangista zena, Francoren jazaraldiaren berri izan zuenean, Berлиндik itzuli eta matxinatuen alde jarri zela. Tovarrek Berlinen nazien politikaren indarraren azala ikusi zuen soilik, indar horrek bere atzean zuen mamuaz ohartu gabe, ustez Alemaniaren lorpen guztiak, batez ere unibertsitatean ezagutu zituen bitartekoak, liburutegi aberatsak, lan metodoa, zientziaren aurrerapenak e.a. nazien politikari esker zirela. Ez zen konturatu, esaterako, bera askoz ere hurbilago zegoela *Paideia* liburu garrantzitsua idatzi zuen W. Jaeger-ren humanismotik, hura errepresaliatu zuen nazien militarismotik baino.

Gerra denboran Radio Nacional irratiko lehen zuzendari gisa propagandaz arduratu zen, hasieran Burgosen eta azkenik Salamanca. Ibilbide politikoan izan zuen kargu altuena, Dionisio Ridruejoren itzalpean hau ere, 1940ko abendutik 1941eko apirila bitartean Prentsa eta Propagandarako Estatu Idazkariordearena izan zen. Baina Tovarrek ez zuen bere burua politikan ikusten eta hurrengo urtean, Salamancako Latineko katedra irabazi ondoren, Tormeseko hirira itzuli, ezkondu eta bere bizialdiko unerik oparoenari eman zion hasiera. Honek ez du esan nahi Tovarrek politikarako interes guztia galdu zuenik, hainbat eta hainbat batzorde eta ekintza akademiko-politikotan parte hartu zuelako, bere unibertsitateko errektorea izatea lortu arte. Kontua da interesatzen zitzaizkion helburuak lortzeko —unibertsitatearen eraberritzea, gazteriaren heziketa eta gizartearen kultura maila jasotzea—, askoz ere eraginkorragoa ikusten zuela irakasle lana politikoarena baino.

Garbi da Tovarren ideia eta jarrera politikoak aldatuz joan zirela denbora pasa ahala. Bilakaera horretan, dudarik gabe,

haren adimen zorrotzak ez ezik haren gizatasun beroak ere izan zuen zer ikusirik. Bere bizitzan hartu zituen erabakiek argi baino argiago erakusten dute, gaztaroko jarrerak ukatu edo zuritu gabe, oposizioko demokratenak egin zituela bereak, eta hala, lehenengo erbesteratzean desadostasunak familia politikoaren barrukoak baziren, bigarren aldiz kanporatu zenean, berriz, erregimenak Madrileko unibertsitateko lagun ezagun batzuk —José Luis López Aranguren filosofoa, Agustín García Calvo filologoa eta Enrique Tierno Galván legegizona— beren katedratik bota zituztelako izan zen; azkenik, 1981eko estatu kolpe saiakeran ozen eta garbi hitz egin zuen biharamuneko *El País* egunkarian diktatura berriro inposatu nahi zutenen kontra.

Hitz batean esanda, Tovar ez zen irabazleen talde estu eta ihartuan garaiaren eztiak gozaten gelditu, ideia ezberdineko pertsonekin izan zituen harremanak eta hauen eskarmentuak eta sufrimenduak aintzakotzat hartu zituen: irakurri egin behar izan zuen, horrenbeste estimatzen zuen Schulten-en eskutik

1944an idazten zionean «gerraondoko Espainia ez zuela batere gogoko eta lehenagokoaren ametsez zegoela».

SALAMANCAKO KATEDRADUN (1942-1958)

Salamanca katedra irabazi zuen urte berean Consuelo Larrucearekin ezkondu zen, familiaren ardura eramateaz gain haren lan, egitasmu eta bidaietan laguntza osoa emango zion emaztea. Consuelok, etxe koentzat *Txelo*, Gasteizen jaioa izan arren, aita bilbotarra zuen eta ama Valladolidekoa. Azken hiri honetara bizi izatera joan zirenean, hango dominikatarren



Jaietan. Txelo emaztea eta lau seme-alaba zaharrenak (1948)

ikastetxean estudiatu zuen, Antonioren arreben laguna zelarik. Salamanca jaio zitzaizkien lau seme-alaba: José 1943an, Juan Antonio urte eta erdi beranduago, Consuelo 1946an eta María Rosa 1948an. Santiago gazteena, ordea, Buenos Airesen jaio zen 1949an.

Salamanca aurkitu zuen Tovarrek, familia gehitzen zihoala, aspalditik amesten zuen eta Alemanian hurbiletik ezagutu zuen unibertsitate aurreratu baten eredia ezartzeko aukera.

Latineko katedradun gisa hizkuntza klasikoen irakaskuntza eta ikerkuntza goitik behera eraberritu zituen. Tovarren ekarpen baliotsuena ikerketa eguneroko jardunean ikasleei erakustea izan zen. Begibistan zen, kanpoko argitalpenak lortzeko zailtasunak handiak izanda ere, bibliografia berriena ezagutzen zuela, zientziarako erabilgarriak ziren hizkuntza guztietan, gainera. Bestalde, ez zen zientzia alor bakarreko gizona, eta lanpostuz latineko katedraduna izan arren, greziera klasikoa latina bezain ongi, edo agian hobeto, menperatzen zuen, arkeologia eta historia ere aintzakotzat hartzen zituelarik; hau da,

Altertumswissenschaft izenarekin eza-
gutzen zen ereduazuen gidaritzat.

Eginkizun horretan ia dena zegoen egiteko,
eta premien artean larriena idazle klasikoen
edizioen eza zelarik, buru-belarri ekin zion
jardun horri: zor dizkiogu Virgilioren *Eglo-
gen*, Sofoklesen *Antigonaren*, Aristotelesen
Atenaseko Konstituzioa eta *Erretorikaren*
eta beste obra askoren edizioak.

Haren eskoletatik pasatu ziren ikasleen
arteaz batzuk ospe handiko ikerlari eta
irakasle bihurtu ziren urte batzuk be-
randuago, hala nola, Francisco Rodrí-
guez Adrados, Martín Sánchez Ruipérez,
Lisardo Rubio, Virgilio Bejarano, José
M^a Blázquez eta beste asko. Lehenengo
biak grezierako katedradunak izan dira,
hurrengo biak latinekoak eta azkena an-
tzinaroko historiakoa, maisuaren irakas-
kuntzaren zabaltasuna agerian utziz.

Baina Filologia Klasikoa ez zen izan To-
varrek landu zuen alor bakarra. Gómez
Morenok 1925erako deszifratua zuen
iberieraren idazkera, nahiz eta arrazoi as-
korengatik urte asko beranduago arte ez
zuen behar bezalako onarpena jaso adi-



Salamancan 1951 inguruan, etxeko pianoa jotzen.
Bulegoan ordu asko lanean eman ondoren, pianoa
jotzen zuen lasaitze aldera. Inoiz jende aurrean ere
jo zuen, bere adiskidea zen Joaquín Rodrigorekin
Salamancako Paraninfoan, esaterako

tuen artean. Tovar laster ohartu zen des-
ziframenduak zekarren aurrerapenaz eta
maisuaaren irakurketa sistema erabiliz ibe-
rierazko idazkunak aztertzen hasi zen.

Aspalditik zetorren tradizioaren arabera
—eta kontu honetan alemaniar jakintsue-
nek, W. Humboldt-ek edo H. Schuchardt-
ek esaterako, gure apologistekin bat egiten
zuten—, euskara iberieraren ondorengo-
tzat hartzen zen. Baina Tovar idazkunak
aztertzen jarri zenean gauza inportante
batez jabetu zen, idazkera modu bakar
baten azpian bi hizkuntza zeharo diferen-
te idatzi izan zirela, alegia. Horietako bat

iberiera zen, baina bestea indoeuropar familiakoa zen dudarik gabe eta, haren ustez, zelta adarrekoa zehatzago, 1946ko «Las inscripciones ibéricas y la lengua de los celtíberos» artikuluan esaten duen moduan. Ondorio berberera ailegatu zen lehen aditua ez zen, ordea, Tovar izan, Gerhard Bähr hizkuntzalari germaniar-legazpiarra baizik Gotingako unibertsitatean 1940an aurkeztu zuen tesian, baina Salamancako irakasleak ez zuen bigarrenaren testua 1948 arte irakurtzeko aukerarik izan, nahiz eta daitekeena izan haren ideien berri Julio de Urkijok bidalitako gutunen batetik izatea.

Arrazoi osoz esan daiteke, bada, Tovar izan zela hizkuntza zeltar horren nortasun berezia —«zeltiberiera» izenez bataiatuko zena— garbien ikusi zuen lehenetarikoa, eta hizkuntza aurkitu berri horren ezaugarriak aztertzen eman ziren lehen aurrerapausoen egilea: «Über das Keltiberische» izeneko artikulua (1947) edo Luzagako brontzeari buruzko ikerketa (1948).

Laster konturatu zen ikerketa eremu ezezagun bezain zabala irekitzen zitzaiola begien aurrean, zeltiberierak mendebale-

ko Europaren indoeuropartzea ulertzeko datu berri eta interesgarriak eskaintzen baitzituen, batez ere hori guztia euskarak suposatzen zuen geruza zaharrarekin konparatzen zenean.

Esan dugun bezala, zeltiberieraren aldamenen iberiera egiten zen antzinako Hispanian. Gómez Morenoren aurkikuntzari esker, lehen ez bezala, iberierazko idazkurenak irakur zitezkeen, aspalditik indarrean zegoen basko-iberismoaren hipotesia ona ala okerra zen jakiteko bidea emanaz. Tovarrek euskara jakitearen premiaz konturatu, eta euskara ikasteari ekin zion ekintza guztietan jartzen zuen adoreaekin. Eloorrion umetan entzundako euskara urrutiko oihartzun bat besterik ezin zitekeen izan; harekin ez zihoan inora. Hizkuntza liburuen bitartez, gramatikak ikasiz eta ahal zuen literatura irakurriz menperatu behar zuen. Berak esaten duenez, 1938an Burgosen zegoen bitartean Zamarriparen gramatika eta Azkueren hiztegia erabiliz hasi zen lehen urratsak ematen. Salamanca heldu bezain laster, orduko gramatikalari onenarekin, Resurrección María Azkue euskaltzainburu zenarekin, jartzen

da harremanetan —biak musika zaleak dira—, eta honek 1943ko maiatzean idatziriko gutun batean animatu egiten du euskaraz gutun bat idatz diezaion. Tovarrek ondo zekien, hiztegiak eta literatura ezinbestekoak izan arren hizkuntza ikasten ari denarentzat, benetako hizkuntza hiztunen ahotik ikasi behar zela. Hortaz, 1945 eta 1946an, familia guztia berarekin hartuz, Orion pasatzen ditu udako oporrak liburuetan ikasi duena hango apaiz batekin praktikan jartzen.

Tovarrentzat euskara antzinako Hispaniako hizkuntzetako bat zen, zeltiberiera eta beste hizkuntza indoeuroparrak etorri baino lehenagoko geruza baten lekuko, historiaurreko garai ilunetan argi apur bat egin zezakeena. Hamarkada horretan Hispaniako hizkuntza zaharrei buruz idatzitako lanak Buenos Airesen 1949an argitaratu zuen *Estudio sobre las primitivas lenguas hispánicas* liburuan bildu zituen.

Salamanca lehen aldia 1948an amaitzen da, Buenos Aireseko unibertsitateak greziera irakasle gisa kontratatzen duenean. Tovarrek haize berriak behar ditu. Salamanca gustura dago, proiektu asko-



Buenos Aireseko unibertsitatean eman zuen lehen eskolara joan zirenekin (1949)

tan lan egiten ari da, baina hiria txikia gelditzen zaio. Familia osoa doa. Azkenean kurtso bat besterik ez zuen eman. Baina nahikoa izan zen denbora labur hori bertako hizkuntza indigenei buruzko interesa bere baitan sortarazteko. Ematen du Tovarrek zenbait euskaldun errefuxiatuarekin ere harremanak izan zituela Buenos Airesen, Ixaka Lopez Mendizabal euskal hiztegiarekin gutxienez, pare bat urte geroago Antonio berak idatzi zuenez.

SALAMANCAKO ERREKTORE (1951-1956)

Buenos Airesetik itzuli eta gutxira, ordura arte hezkuntzan nagusi ziren ur geldoak



Ruiz-Giménez
Hezkuntza
ministroa Tovar
errektore gisa
janzten

mugitzen hasi ziren Joaquín Ruiz-Giménez Hezkuntza ministro berriaren eskutik. Tovar Salamancako unibertsitateko errektore izendatu zuten. Lozorroan bizi zen erakundea barrenetik astindu zuen. Fakultate guztiak modu egoki eta zuzenean tratatu zituen arren, haren ahaleginen fruitua Letretako Fakultatean agerian gelditu zen. Hasteko Filologia Klasikoaren irakaskuntza plana berritu zuen, ikasgaien artean testuei eta haien iruzkinei garrantzia emanez. Gero, eredu berbera erabiliz, hizkuntza modernoan filologia sortu zuen Salamancan, Espainiako lehena. Filologia Klasikoan bi hizkuntza ikasi behar baziren, greziera eta latina, alegia, haien literatura, hizkuntzalaritza eta historiarekin batera, Filologia Modernoan ere bi hizkuntza aukeratu behar zituen ikasleak, ingelesa, frantsesa, alemana eta italieraren

artean. Eredu hau gero beste unibertsitate batzuetara zabaldu zen, baita Euskal Herriko ere Mitxelena eskutik.

Argitalpen zerbitzua errotik eraberritu zuten. Salamancako Unibertsitateak zerbait argitaratzen zuen lehenagotik ere, —Julio Caro Barojaren *Materiales* liburua adibidez—, baina Tovarrek eman zion bultzadari esker nazioarteko ikerlari askoren obrak kaleratuak izan ziren, *Acta Salmanticensia* saila munduan zehar ezaguna izatea bihurtuz. Argitaratuen artean euskal gaiek eta ingurukoek abantailazko tokia izan zuten: Juan Gorostia garen *Vocabulario del refranero vizcaíno de 1596* eta René Lafonen *Études basques et caucasiques* liburuak.

Ikerketa, zerbaitetan mamitzen eta gorpuzten bada, doktoretza tesietan izaten da. Ezin zuen irudikatu unibertsitateak, ikerketa eta irakaskuntza uztartu behar bazituen, doktoreak egiteko ahalmenik ez izatea. Halaxe zen, ordea, Espainian, Madrileko Unibertsitate Zentralak baitzuen soilik ahalmen hori.

Salamancakoak ere ahalmen bera izan zezan bide egokia iruditu zitzaion Uni-



Joaquín Ruiz-Giménez eta Salamancako apezpikuarekin batera VII. mendeurreneko ospakizunetan. Ekitaldi akademiko batean hitz egiten Salamancako Unibertsitateko Paraninfoan, errektore gisa

bertsitatearen historia luze eta loriatsua munduaren eta Francoren aurrean aldarrikatzea, horretarako sortzearen VII. mendeurrenaren ospakizunak garaiz kanpo antolatu behar baldin bazituen ere; izan ere, 1954an ospatu zen 1918an ospatu beharrekoa. Salamancako Unibertsitateak —eta ondorioz Estatuko unibertsitate guztiek—, doktoreak egiteko ahalmena berreskuratu zuen, eta Francok ordainetan *Honoris causa* doktoretza jaso.

Tovarrek 1956an utzi zion errektore izateari. Alde batetik erregimenaren alderdi kontserbadoreenak ez zuen begi onez ikusten Tovarren antzeko intelektualak abian jartzen ari ziren erreforma —Madrileko Ateneoan Vigón jeneralak publikoki gaitzetsi zuen «afrancesado»

deituz— eta beste aldetik Opus Dei erakundearen inguruko teknokratak falangisten lekua eskuratzen ari ziren. Tovarri ez zitzaizkion inoiz gustatu Opuseko lagunek hezkuntzari buruz zituzten egitasmoak; bera, Humboldt bezalaxe, hezkuntza publiko duin eta indartsu baten defendatzaile izan zen. Haren seme-alabek eskola eta institutu publikoetan egin zituzten beren ikasketak.

Salamancako unibertsitatearen VII. mendeurreneko ekitaldietako batean, Francoren eta Ruiz-Giménez Hezkuntza ministroaren ondoan, Unibertsitateko errektorea zelarrik



MANUEL AGUIR – + ANTONIO TOVAR

DICCIONARIO ETIMOLÓGICO VASCO

I

A - ARDUI

Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputación Foral de Guipuzcoa
Donostia - San Sebastián
1989

Tovar eta euskara

Diccionario Etimológico Vasco, 1952 inguruan sortutako egitasmoa ez zuen buruturik ikusi.

Tovar hil eta lau urtetara ekin zion Agudek argitaratzeari

I 950eko hamarkadan, karguak eskatzen dizkion eginbeharrak gorabehera, Tovar ez da aitzineko urteetan asmaturiko egitasmoetatik aldentzen.

Dena den, esan behar da haren gogoen artean euskarak toki aparta eta berezia izan zuela. 1950ean *La lengua vasca* izeneko liburua ateratzen du, non euskararen deskribapena egiteaz gain, hizkuntzaren jatorriaren inguruko teoriak ere tratatzen dituen. Ohartzen da, euskarak iberieraren edo Europako hizkuntza egoeraren ulermentean argia eman nahi badu, hizkuntzaren historiaurrean ikerketa sakonak egin behar direla. Hizkuntza indoeuroparrekin gertatzen ez den bezala, ez dago euskal hiztegi etimologikorik eta eman diren etimo-

logiak banaka eta sistemarik gabe eginak dira, fantasia hutsak ez direnean. Badaki, euskara hizkuntza isolatua izanik, egitasmoa zaila izan daitekeela. Baina Tovarrek uste du hiztegia bera egin ahala euskarak bere historian zehar «egin dituen» ahai-deak agerian geldituko direla, haren iritziz jatorrizko ahaidetasunaren ondoan bada-goelako beste bat, «parentesco progresivo por convivencia» deitzen duena, historiaurreko zenbait kontaktu eta mugimenduen berri emateko gai dena. Eta hain berea duen kemenarekin ekiten dio Euskal Hiztegi Etimologikoaren aurrelanari.

Halaxe ikusten du hiztegiaren helburu nagusia: «bibliografia eta proposaturiko etimologiak bildu, gaia ordenatze aldera,




Tovarrek 1950eko hamarkadan euskarari buruz idatzitako bi liburu. *La lengua vasca*-n hizkuntzalari baten ikuspuntutik hizkuntzaren aurkezpena egiten du; *El Euskera y sus parientes*-en, aldiz, ikerketa propioak eskaintzen ditu

errepikapenetan ez erortzeko; funts gutxiko proposamenak modu kritiko batean alboratu eta egiantza dutenak utzi».

Bestalde, badaki ezin duela proiektua laguntzarik gabe aurrera eramán. Antzianako hizkuntzak eta epigrafia jakin arren, konparatismoaren metodoak ere ezagutu arren eta euskara ulertzeko gai izan arren, ez da euskal hizkuntzalaritzan aditua Koldo Mitxelena —duela guti ezagutu duena— den bezala. Horrexegatik, Donostiako Institutuko greziera irakasle den Manuel Agud-ekin batera nahiko goiz Mitxelena egitasmoan parte hartzera gonbidatzen du. Gerorago Espainiatik erbesteratua bizi den Joan Corominas filologo katalanaren laguntza eskatzen du. 1954ko artikuluan batean esaten digunez, ordurako

20.000 fitxa inguru eginak zituzten eta urte horren barruan aleren bat kaleratzea espero zuen. Ez zuen, baina, bere bizitzan Hiztegia argitaratua ikusi. Ekimena uste baino zailagoa zen, bai gaiaren aldetik eta baita ere, garrantzi handia zuena, paraitdeen interes eta lan egiteko metodoen aldetik ere. Laurak elkarrengandik urrutiti bizi eta lan egiten zuten; Mitxelenak, interesatuta egon arren, premiazkoagoa ikusten zuen Euskal Hiztegi Orokor eta

Koldo Mitxelenak
Donostiatik Tovarri
Salamanca
bidalitako karta,
Unibertsitateko
artxiboan gordetzen
dena







Andoainen, Baskongadako lagunekin, Manuel Larramendiren jaiotetxea bisitatzen

Historikoa, Etimologikoa baino. Hala ere, Tovarrek ez zuen etsi. Bidaiak bidaia, edonon ere aurkitzen zelarik, hiztegiko fitxa guztiak berarekin izan zituen urteetan zehar, daturen bat gehitzeko edo okerren bat zuzentzeko asmotan. Tubingan zegoela hiztegiko lehen letrei dagokien testua idatzi zuen eta Corominasi luzatu iruzkinen zain. Harriturik geratu zen, honek 670 orrialde iruzkin idatzi zionean berak bidalitako 300 orrialdeko testuaren gai-

nean; «la manera verdaderamente feroz de trabajar de aquel admirable catalán» dio Mitxelena 1971ko gutun batean.

Arestian esandakoak Tovarrek ikerle moduan egin zituen. Baina errektore gisa beste gauza garrantzitsu bat burutu zuen euskararen mesedetan, «Euskal Hizkuntza eta Literaturako Larramendi Katedra» sortu, alegia. Katedraren helburua ez zen euskara irakastea, nahiz eta lehen urteetan Tovarrek berak eskolak eman, baizik eta urtero euskal hizkuntzalaritzan, literaturan edo etnografian prestatuenak zirenak gonbidatu Salamancan kurtso labur, mintegi edo hitzaldiak egitera. Inauguraziorako Aita Jose Migel Barandiaran gonbidatu zuen; gero Juan Gorostiaga




Jokin Zaitegik Guatemalatik euskaraz idatzi zion eskutitza, Salamancako artxiboan gordetzen da

euskaltzaina eta beste batzuk. Azkenean, ikusirik Koldo Mitxelena zela egokiena katedraren helburuak betetzeko, urtero gonbidatu zuen kurtsoren bat ematera. Tovarrek Salamanca utzi zuenean, katedraren kudeaketa Sánchez Ruipérez en eskuetan gelditu zen, eta honek ere Mitxelena gonbidatzen jarraitu zuen, errenteriarrek Hizkuntzalaritza Indoeuroparreko katedra irabazi zuen arte. Harrezkero Mitxelenaren beraren ardurapean, Larramendi katedrak aukera eman dio zenbait euskalduni, ikastaroak ematen zituzten bitartean, beren ikerketak Salamancan egiteko: han ezagutu nituen Patxi Altuna, Andolin Eguzkitza eta Ibon Sarasola.

Euskal Hiztegi Etimologikorako egiten dituen etimologiaz gain, interesatzen zaion bigarren kontua Europako indoeuropartzea da eta bereziki prozesu horren aurrean euskarak izan zezakeen portaera. Ildo honetatik aipatzekoak dira «Indo-European Layers in the Hispanic Peninsula» (1957) lan garrantzitsua eta «-ko» atzizkiak ondu zuena. Euskarak historiaurrean izan zitezakeen ahaideak ere aztertzen ditu zenbait lanetan, hemen aipatzea luze izan-

Iberiar inskripzioetan lekukotzen diren hitzen lehen zerrenda zientifikoa (1951). Separatak Tovarrek berak eskuz idatzitako euskarazko eskaintza dakar



go litzatekeena. Azkenik, euskarari buruz, zuzen edo zeharka, argitaratzen denaren zain dago eta erresein bidez bere iritzia plazaratzen du. Gainera aipatu besterik ez badut egiten ere, iberieraz zein zeltiberieraz urteetan erreferentzia lanak izango direnak idazten ditu.

Garai horietako euskal lanak *El Euskera y sus parientes* liburuan bilduta Franzisko Etxebarria adiskideak zuzentzen zuen Minotauro argitaletxean 1959an argitaratu zituen. Bide batez, argitaletxe berberak urte batzuk beranduago Mitxelenaren *Historia de la Literatura vasca* eta *Textos Arcaicos Vascos* garrantzi handiko lanak aterako ditu. Azpimarratzekoa da bizkaieraren kokapen dialektologikoari eskaini zion lana, euskalki guztien jatorrizko batasuna defendatuz, C. Uhlenbeck-en ideien aurka.



Espainiatik kanpo

Urbana Champaing-eko unibertsitatean irakasle zen garaikoa, Illinois-eko etxean lanean

AMERIKETAKO EGONALDIA (1958-1967)

Espainiako giroaz gogaiturik, Argentinan azaletik baino ezagutu ez zuen hizkuntza indigenen mundu berri eta zabalaren jakin-mina bete nahian Tucumane-ko unibertsitateak luzatu zion gonbitea onartzea erabaki zuen. Familia osoa joan zen itsasontziz, eta denen inpresioa zen denboraldi luze batean ez zirela Espainiara itzuliko. Luzarorako agurraren kutsua asko areagotu zitzairen bidaiaren aurretik egin ziren prestamenengatik. Hogeiren bat egur-kaxa handitan sartu zuten eraman beharreko guztia, Antonioren liburuak eta paper mordoak barne; hauen

artean Euskal Hiztegi Etimologikoaren fitxak.

Tucumanen, munduko zaratatik urrun, gogoz ekin zion El Chaco eskualdeko hizkuntzak aztertzeari, batez ere matakoa —hiztunek witxi deritzatena—, txulupia eta txorotea. Magnetofoni handi batean hiztunen esaldiak eta ipuinak grabatzen zituen, gero hizkuntzaren ezaugarriak deskribatzeko asmotan.

Ikerketa hauen ondorioak amerikanisten kongresu orokorretan aurkeztu zituen, Mexicon 1964an, Sevillan 1966an txoroteari buruz eta azkenik, Liman 1975ean. Baina hizkuntzaren deskribapen zientifikoaren gaineratik hizkuntzen egoera so-

ziolinguistikoak hunkitu zuen, ikusten baitzuen galtzeko arriskuan zeudela. Horregatik interesatzen zitzaizkion bertoko hizkuntzen eta espainolaren arteko harremanak, zer gal eta zer irabaz zitekeen elkarbizitzan, hitz batean, nola ematen zen bi munduren arteko borroka ez-orekatua. Eta bazuen antza egoera honek antzinako Hispanian eta European gertatu zenarekin.

Ameriketean Tovarrek hizkuntza konparaketak egiteko metodo berri bat sakondu zuen, Swadesh-ek asmatutako lexiko-estatistika, alegia. Idatzizko tradizioz gabeko hizkuntzak konparatzeko asmatu zen metodoa; uste zuten zenbait hizkuntzaren oinarriko hiztegia konparatzean elkarren antza zuten hitzen portzentajeak erakusten zuela hizkuntzen arteko ahaidetasunaren hurbiltasuna. Beranduagoko ikerketak erakutsi zuen metodoaren ahulezia. Baina Tovarrek urte haietan konfiantza handia zuen metodo berri honetan eta Swadesh metodo asmatzailea eta Koldo Mitxelenarekin batera euskara aztertu zuen ikuspuntu honetatik; esan behar da, hizkuntza bereberrekin zein kaukasiarrekin erkatu ondoren ez zirela ondorio

garbiak atera, eze biekin erakusten zuen euskarak, datuen arabera, erlazio portzentaje txiki bat, hizkuntzalaritza konparatuaren estandarretarako hutsala izateaz gain, kontraesanezkoa zena; baina Tovarren ustez euskarak bere historiaurre luzean bi hizkuntza-familia horiekin izandako harremanen aztarnak ziren.

1960an Espainiara itzultzen dira, baina ez luzerako. Seme-alabak unibertsitatara joateko adinera heltzen ari dira eta gero eta zailagoa egiten zaio Espainiatik kanpo familia guztiarekin egotea. Alde batetik



Bogotako Caro y Cuervo Institutuaren liburutegian amerindiar hizkuntzak aztertzen (1980)



Bere emazte Txelorekin Tucumaneko etxean, 1959an

Madrilera gustatuko litzaioke etortzea, bestetik Estatu Batuetako unibertsitateak ezagutu nahi ditu. Hala, 1961-62ko ikasurtean, Illinoisen irakasle kontratatu gisa klasiketako eskolak ematen ditu. 1965ean Madrileko katedra lortzen du eta ematen duenean azkenik, bere interesak eta familiarenak baturik, Madrilen finkatuko dela, politika berriro ere gurutzatzen zaio bidean eta, ideien koherentzia erosotasunaren gaintetik jarriz, lortu berri duen katedrari uko egin eta Illinoiseko postua hartzen du berriro. Oraingoan bi seme zaharrenak Espainian utzita hiru gazteenekin doa.

Illinoiseko unibertsitatean aurkitu zituen ikerketarako behar ziren bitarteko aberratsak. Ikusi zuen neurri batean bere gaztarooan Alemaniako unibertsitatean bilatzen zuena orain EEBBetako unibertsitateetan aurki zitekeela. Han zeuden Alemaniatik ihes egindako irakasle asko, W. Jaeger esaterako, Harvard-en bisitatu zuena. Eskolak hizkuntza klasikoei buruzkoak ziren, baina beste alorrak ere landu zituen; Hispaniako hizkuntza zaharrak *Ancient Languages of Spain and Portugal* izeneko liburu ezagunean jorratu zituen. Urte berean Buenos Airesen *Catálogo de las lenguas de América del Sur* argitaratu zioten, hizkuntza amerindiarren gainean ondu zuen lanik profitagarriena.

Pare bat urte pasa ondoren, beste konfliktu baten aurrean ikusi zuen bere burua, eze hango agintariek bertan nazionaliza zedin nahi zuten eta Antoniok ez zuen espainola izateari uko egin nahi. Hala, 1967an Tubingara (Alemania) joateko aukera izan zuenean, ez zuen zalantzarik izan: Europara itzuliko zen, etxetik nahiko gertu.

TUBINGAKO EGONALDIA (1967-1979)

Tubingan ere, bizi guztian egin duen bezala, bere betiko gaiak segituko ditu aztertzen, baina tokiak zein garaiak eskatzen dutenari so eginez. Indoeuoperazko katedra duenez gero, hizkuntza indoeuoperaren azterketari emango dio lehentasuna, batez ere, Europa zaharreko hidronimia, hau da ibai-izenak, eta Mendebaldeko indoeuoperartzea izango direlarik aztergai nagusienak. Lehenengo gaian Kraheren teoria, guztiz arbuiatu gabe, aberasten du hidronimia horretara hizkuntza aurreindoeuoperarek egin duten ekarpena agerian jarritz. Bigarren gaian euskararen portaera deigarria azpimarratzen du ondoko lan honetan: «The Basque Language and the Indo-European Spread to the West». Hispaniako hizkuntzei dagokienean, Cabeço das Fráguas-en (Portugal) aurkitu berri den inskripzioa aztertu ondoren, hango hizkuntza, hau da lusitaniera, hizkuntza zeltetatik bereizi egiten du. Bestalde, urte hauetan aspalditik hasia zuen egitasmoa burutzen du, Schultenen Geografia historikoaren jarraipena, hain zu-

zen, *Iberische Landeskunde* izenburuaren azpian hiru tomotan argitaratuko duena (Baetica, 1974; Lusitanien, 1976; Tarracensis, 1989, hil ondokoa).

Ez ditut Antzinaroko Historiaz idatzi zituen lanak aipatuko, ezta ere amerindiar hizkuntzalaritzaz eta etnografiak zuzendu zituen tesiak, euskal gaiez egin zituenak baizik. Ameriketara joan zenetik, eta ba-



Beste idazle eta intelektual batzuekin batera Azorin idazleari egin zion bisita



Azken urteetako bi obra. Bata euskal estudioen historia kritikoa da. Bestea Hego Ameriketako hizkuntza amerindiarren sailkapenaren 2. agerraldia da, bere emaztearen laguntzaz burutu zuena



Julio Caro Baroja etnologoarekin Madrilen. Carok antzinako populuen etnologiaz gain iberiar idazkera ere aztertu zuen

tez ere Tubingako urteetan, euskara ikuspuntu berri batetik hasten da ikertzen; etimologia baztertzen du eta tipologiako ikerketa berriak hartzen ditu kontuan euskararen deskribapen eta historia lanetan. Baina, dudarik gabe, gehien interesatzen zaizkion gaiak historiografikoak dira. Beticidanik izan du W. Humboldt, L. Hervás y Panduro edo aita M. Larramendi bezalako aitzindarienganako begirunea: Europako zein Ameriketako hizkuntzen sailkapena dela, tipologiako baieztapenak direla edo

euskararen antzintasuna dela, ordu asko eman ditu hiru jakintsu horien eta beste askoren idazkiak irakurtzen. Irakurketa hauen guztien ondorio gisa *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* izeneko liburu aipagarria argitaratzen du 1980an.

Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi A. Tovarrek ia 20 urtetan zehar, 1963tik 1982ra bitartean, *Gaceta ilustrada* aldizkarian argitaratu zituen literatura-kritika lanak. Milatik gorako kritika eta irakurketa iruzkinak dira, Espainiako eta Ameriketako



Tovar literaturazale eta irakurle porrokatua izateaz gain, kritika lan ugari idatzi zuen. Idazleen artean, bere belaunaldikoekin harreman estuak izan zituen. Hemen Lain Entralgo, Ridruejo eta Torrente Ballesterrekin, beste batzuen artean, ikusten dugu

literaturaren eta kulturaren berri ematen dutenak. Ez da agian kasualitatea izango eginkizun honetan Espainiatik alde egin ondoren hasi izana: sentitzen duen herri-mina asetzeko eta aberriarekin loturak ez eteteko aukera emango dio. Tovarrentzat aberria Espainia da, gaztelania, galegoa, katalana eta euskararen Espainia; ama hiz-

kuntza gaztelania badu ere, besteak maite ditu, eta horregatik ikasi eta irakurri egiten ditu. Urtero idazten dituen liburu kritiken artean beti daude katalanez edo galegoz idatzitakoenak. Baita euskal liburuenak ere: esaterako, Arestiren *Harri eta Herri*-ren edizio batena edo Etxepareren obraren Patxi Altunaren edizioarena.



Hamburgoko FVS Fundazioaren presidentea agurtzen, honen eskutik Goethe saria jaso eta gero (1981). Fundazio berak bi urte beranduago K. Mitxelenari Ossian saria eman zion



Nulla dies sine linea. Madrileko etxeko bulegoan makinaz idazten. Tovarrek argitaratutako lanak bi milatik gora dira, eta ez zuen egunik pasatzen utzi hamaika eskutiz idatzi gabe



Bilbon mahai-inguru batean (1981). Ezkerretik eskuinera: Koldo Mitxelena, Pedro Saiz, Tovar hitz egiten, aita Villasante euskaltzainburua eta Marcelino Oreja politikaria



Gaztetatik Greziako kultura eta hizkuntza beti landu arren, Espainiara 1979an itzuli ondoren izan zuen *Sociedad Hispano Helénica* —eta honen aldizkaria den *Erytheia*— sortzeko aukera. Elkarteko lagunekin Bustarviejo-n bildotsak erretzen 1981eko udaberriari

AZKEN URTEAK

Tubingako unibertsitatean 1979an jubilatutik ondoren, Madrilera itzuli zen. Espainia politikoki aldetik Trantsizio garaian murgilduta zegoen bete-betean. Ez da politikan sartzen, baina gizartearen elkarbizitzarako garrantzitsuak diren gai batzuk jorratzen ditu, hala nola hizkuntza minorizatuen eskubideak eta elebitasunaren auzia. Euskoaldiko sozialistek gonbidaturik, Bilbon, elebitasunaren gaineko mahai-inguru batean hartzen du parte, Juan San Martin eta Koldo Mitxelenaekin batera.


Azken urte hauetan ere ez du euskara baztertuko bere ikerketa lanetatik. Fray Juan de Zumarraga Mexikoko lehen apezpiku izandakoaren euskal gutun bat argitaratzen du, Mitxelena eta Otte-rekin batera, tipologiazko hurbilketak eta hizkuntzaren jatorria ahaztu gabe. 1985eko maiatzean, pare bat urte lehenago aurkitu zioten min-biziagatik oso ahuldurik egon arren, Gas-teizen Hizkuntza paleohispanikoei buruzko jardunaldietan parte hartu zuen, azken aldiz Hispania zaharreko hizkuntza-egoeraz pentsatzen zuena esateko. Guk ez



Georgiako hiriburua den Tbilisen euskarari buruzko hitzaldi bat ematen



Tovarri, bizi zen artean, lagunek eta ikasleek omenezko bi liburu eskaini zioten. Hil ondorengo hirugarren hau berari eta Mitxelena-ri eskaini zitzaion, Espainiako hizkuntza zaharren ikerlari nagusitzat hartuz



Espainiako Hizkuntza Akademian sarrera hitzaldia egin zueneko ekitaldian, Martín Sánchez Ruipérez, Francisco Rodríguez Adrados helenistekin eta Veleia-Iruñako erromatar aztarnategia induskatu zuen Gratiniano Nieto arkeologoarekin batera (ezkerretik eskuinera)

genekien azkenetan zegoela, berak ere ez zuen ezertxo esan eta, baina seguru asko despedida modura hartuko zuen Jardunaldien azken egunean, Koldo Mitxelenak eta honen andreak Matildek antolatutik, El Portalón jatetxean lagun arteko giro beroan egin zen afaria. Hilabete batzuk beranduago, 1985eko abenduaren 14an, Madrilen hil zen, 74 urte zituelarik.

Tovarrek bere bizitzan zehar ohore asko jaso zituen. Euskaltzain urgazle (1947), Alemaniako arkeologia institutuko urgaz-

le (1950), Bolognako akademiakoa (1956), Espainiako Hizkuntza Akademiako kide osoa (1968), Buenos Aires, Munich, Sevilla eta Dublingo unibertsitateetako *Honoris causa* doktorea, etab. Ikasleek, lagunek eta adiskideek maisuarenganako begirunea erakusteko aukera hiru aldiz izan zuten, Madrilen (1972), Tubingan (1984) eta Salamancan (1990) eskaini zitzaizkion omenaldietan.

Dohain handiko gizona, nekaezineko langilea, kultura zabaleko irakurlea, idazle jorria, askotariko gaiak jorratu bazituen ere —lehen begirada batean ordenik gabeko lorategiko emaitzak liratekeenak—, baze goen, itxuraz, oso ezberdinak ziren loreak sorta bakar batean biltzen zituen barrerako arrazoi bat, eta, nire ustez, lokarri hori Espainia da, edo, hobeto esanda, Espainiaren ideia, antzinaroko iberiar penintsulako herrietan eta hizkuntzetan errotzen dena eta Ameriketara zibilizazioa eramanduena. Tovarrentzat euskara Espainia eta Europaren sustraia da, latina eta greziera enborra diren bezala, eta matakoea Espainiako zuhaitz eder horren itzalpean zaindu egin behar den lore delikatua.

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Tovar Larrucea familiako senideei, batez ere Consuelo eta Santiago Antonio Tovarren alaba eta semeari, eta Sofia Torallas ilobari
- Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegiaren zuzendari den Pruden Gartzia jaunari
- Salamancako Unibertsitatearen Artxiboaren zuzendari den Miguel A. Jaramillo jaunari
- Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Ikerkuntza Sailari ondorengo ikerketa proiektuetarako laguntzagaririk: FFI2009-13292-C03-01, GIC 10/83 IT486-10 eta UFI11/14

Zuzendaritza:	Jerardo Elortza
Argitaraldia:	1.a, 2012ko martxoan
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa:	SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	978-84-457-3197-0 (Lan osoarena) 978-84-457-3198-7
L.G.:	VI 160-2012

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística